

## MEMORIA

### ZIBISMOARI BURUZKO ORDENANTZAREN PRESTAKETA, BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA ETA GARBIKETA, ETA HERRIKO PAISAIAREN BABESA ARAUTZEN DITUENA

ARAU ONARTZEKO PROZEDURAREN AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN TRAMITEA.

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan ezarritakoaren arabera, egitasmoak eta aurre-egitasmoak eta araudiak egin aurretik, kontsulta publikoa egin beharra dago, hain zuzen ere etorkizuneko arauak agian eragingo dien pertsonen eta elkarte esanguratsuenen artean iritzia jasotzeko; beraz, hori betetze aldera, alde aurreko kontsulta egin bedi *zibismoari buruzko ordenantzaren prestaketarako prozeduran, Urretxuko Udaleko bide publikoaren erabilera eta garbiketa, eta herriko paisaiaren babesa arautzen dituen*.

Arauren aurrekariak	<p>Arau honek ez du aurrekaririk, aspektu batzuk izan ezik, esaterako jabetza pribatuko eraikinetako fatxaden zortasunak, 2010eko ekainaren 21eko Udalbatzak onartutako <i>bizitegi lurzoruan lurzati eraikigarrien eraikuntza eta erabilera arautzen duten Ordenantzetan</i> araututako zerbitzu publiko ezberdinen alde.</p> <p>Nolanahi ere, TAOL Legeak hiriko ingurumenaren arloan ematen dizkion eskumenak moldatzen ari da Urretxuko Udala, eta aipatutako Legearen 139 artikuluan ezarritakoaz baliatuz, herriaren intereseko bizikidetzaren harremanak eta zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta gune publikoen erabilera ordenatu nahi ditu.</p>
Ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak	Herritarren arteko bizikidetzaren arazoak gutxitzea edo/eta konpontzea, esaterako gaueko iskanbilak, zaratak..., eta ondasun publikoen edo

	gune publikoetan kokatutakoen erabilera, adibidez pintadak, kartelak...
Hori onartzeko beharra eta aukera	Urretxu sozialki kohesionatutako herri bat izateko desioa (edo izaten jarraitzea), pertsonen eskubideak errespetatzen dituen eta ondare publikoaren babeslea, eta herritar guztiak horretan inplikatu nahi izatea, horiexek dira ordenantza hau egokitzea jotzeko arrazoiak.
Arauren helburuak	Bizikidetzaren hobetzea eta errespetua sustatzea. Herri egitea, beti ere erantzukizuna herritar guztien artean partekatzeko ideiarekin. Iraunkortasuna hobetzea.
Aukerako soluzio arautzaile eta ez arautzaile posibleak.	Aukerako soluzioa ordenantzarik ez egitea izango litzateke. Baina dena den, herriaren presentzia eta bizilagunen bizikidetzaren hobetzeko desioak honen prestaketari ekitea gomendatzen dute, eta modu uniformearen eta eraginkorrean aplikatzea ziurtatu.